

Internet Everywhere

orange

orange

CANAL AGROALIMENTARIO DE CATALUNYA
 Con la colaboración de la Generalitat de Catalunya.
 Departament d'Agricultura, Alimentació i Acció Rural

.MOBI CHANCE LATAM EPSOCIAL MOTOR OTR PORTALTIC .CAT

europapress.es PAÍS VASCO

Lunes, 20 de septiembre 2010

últimas noticias

Euskera

Usuario Entrar

X. Sagar uzta Buscar

En esta sección

LENGUAS

NACIONAL INTERNACIONAL ECONOMÍA DEPORTES TV CULTURA SOCIEDAD COMUNICADOS INNOVA VÍDEOS FOTOS SERVICIOS

PAÍS VASCO Euskera Álava Guipúzcoa Vizcaya

UZTA "BIKAINA" ESPERO DA

Sagar Uzta jaia ospatuko da igandean Astigarragan

Euskera



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Saiburordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA

Viceconsejería de Política Lingüística

vodafone

Vodafone ADSL
por 4,90 €/mes

Cámbiate ya ▶

power to you

Y te regalamos el mejor fútbol
GOL D

A LA ÚLTIMA EN CHANCE



DEPORTES



Más Noticias

Más Leídas

Emakundek mintegi batekin hasiko du bihar "Nahiko" berdintasun programaren ikasturte berria

Gizon bat atxilotu dute Gasteizen bikotekide ohiari erasotzeagatik

Bizkaiko Foru Aldundiak eskola-umeentzako egitarau didaktikoak eskainiko ditu Bilboko Museo Arkeologikoan

Lady Dottie & The Diamonds taldeak bere blues, soul eta rock nahasketa eskainiko du urriaren Gasteizen eta Bilbon

Elkargiren XI. Finantza Foroak 1.000 finantza-zuzendari baino gehiago bilduko ditu asteazkenean Bilbon

Literaturaren eta gastronomiaren arteko loturaz ariko dira bihar Bilboko Bidebarrieta liburutegian

Sagar Uzta jaia ospatuko da igandean Astigarragan

Imprimir Enviar

COMPARTE ESTA
NOTICIA0
tweets Facebook

tweet

menéame



Foto: SAGAR UZTA

DONOSTIA, 20 (EUROPA
PRESS)

Sagardoetxeak antolatu eta Astigarragako herriak (Gipuzkoa) bultzatuta, Sagar Uzta jaiaren hamargarren edizioa ospatuko da igandean, irailaren 26an, jende guztiarentzako prestaturiko eta sagarraren eta sagardoaren kulturaren inguruan oinarrituriko

jarduerekin.

SUSCRÍBETE A LAS
NOTICIAS DE EUSKERA
EN TU ENTORNO:

Sagardogileek uzta berriko lehendabiziko muztioa egingo dute, Sagardun Partzuergoko talde kulturalak emanaldi guztien antolaketa parte-hartuko dute, Josu Irizar eta Aintzane Olaizolak Foru Plaza sagarrekin apainduko dute eta Astigarragako zenbait ostalarik bisitarien ahosabaiaik gozatuko dituzte.

Sagardoetxean 2010eko uztako sagarraren heldutasunaren egoeraren txostena argitaratu da aste honetan, eta txosten hau, www.sagardoetxea.com web-orrialdean eskuragarri dago. Urtero bezala, Sagar Uzta jaia sagarraren azokan eta 2010eko uztako lehen muztioaren elaborazio prozesuan oinarrituko da, tolarean bertan muztioaren usadiozko elaborazio prozesua erakutsiko delarik: kirrikoketa, pisoiekin sagarra jotzea, txalaparta eta ekoiztutako muztioaren dastaketa.

Aurtengoan, Sagar Uztak honako berrikuntzak dakartza: alde batetik, Foru Plazaren apainketa sagarrekin eta meta baten eraikuntza xexto eta sagarrekin Josu Irizar eta Aintzane Olaizolaren eskutik. Beste alde batetik, bertako sagarrekin egindako elaborazioen dastaketa izango da Astigarragako zenbait ostalarien eskutik.

Honekin batera, Sagardoetxean III. Argazki Rally Digitala antolatu da eta aurtengoan, lehendabiziko aldiz, Astigarragako bildumarik onena sarituko da. Aurreko urteetan bezala, gaitzat Sagar Uzta jaia bera izango du argazki rallyak.

Halaber, hirugarren urtez jarraian, sagardogintzako herri kirolen lehiaketa ospatuko da eta eskualdeko sagardogileen arteko sagar bilketan eta sagardoaren elaborazioan oinarrituko da.

UZTA "BIKAINA"

Sagardoetxeko arduradunen arabera, aurtengo denboraldian Euskal Herrian jasoko den sagarraren kantitatea "bikaina" izango da, aurten sagar kopurua aurreko urtekoa baino askoz handiagoa baita. Azken hamar urteetan bezala, irailaren hasieran Gipuzkoako sagasti ezberdinetan kontrol bat egin da, sagarraren egoera ezagutu ahal izateko.

Honetarako, Gipuzkoako zenbait sagasti jarraitu dira, Beterri aldekoak gehienbat, denera 14 bariedade kontrolatuz: Aritza, Errezila, Gezamina, Goikoetxe, Manttoni, Moko, Mozolua, Patzolua, Txalaka, Udare Marroi, Urdin, Urtebi Haundi, Urtebi Txiki eta Verde Agria.

Orokorrean, 2010ko iraileko lehenengo hamabostaldian, sagastietan azaldu diren zenbait puntu bereizi daitezke: sagarren heldutasunaren egoera, orokorrean, 2009koaren antzekoa da; azukre maila begiratu, aurten, batez beste 10,9º Brix du, aurreko urtean bezala; almidoiaren erregresioa 3ko indizean dago, hau da, aurreko urtea baino zeozer atzeratuagoa; bariedadez bariedade begiratu ezker, ezberdintasunak ikus daitezke; aurten ekoizpen handia espero da, eta sagasti batzuetan, agian inoiz izan duten altuena; tratamenturik egin ez duten sagastietan, sagar portzentai garrantzitsu bat harjoangatik kaltetua izan da. Aipatu behar da, aurreko urtearekin konparatuta, kalteen portzentajea handiagoa izan dela.

[Curso de Inglés Avanzado](#)

Mejora tu Nivel de Inglés. Cursos Online y Presenciales ¡Infórmate!
www.SoloCursos.net/Inqales_Avanzado